



FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jardueren barruan, bezeroengana iristea eta hauekin harremanetan jartzea, balorezko proposamena garatzea eta diru sarrerak sortzea dira jarduerak nagusienak. Gure enpresak, proiektua aurrera eraman ahal izateko hurrengo jarduerak beteko ditugu.



Balio proposamenean esan bezala, gazteen aisialdi gabezia konpontzeko intentzioarekin sortu dugu enpresa, izan ere, konstziente gara hainbat bidai enpresa daudela jada baina gure enpresa gazteentzako zuzenduta dago zehazki. Hori dela eta, bidai paregabe batzuk antolatzen hasi gara hurrengo hurratsak emanez.

Hortaz, gure enpresak bi leku ezberdinetako bidaia eskainiko dugu, Ibiza eta Mallorca. Azken urteetako gazteen bidaiak aztertu ondoren, bi leku hauek izan dira arrakasta gehien izan duten tokiak. Gainera, antolatuko nahi ditugun ekintzak bertan egiteko aukera ezinhobea dugu. Ikusi dezakegu bi aukerak nahiko berdinak direla, ingurune antzekoa dutenez bi bidaietan zerbitzu antzekoa eskaintzeko aukera dugu.

Beraz, bidai hau gauzatu ahal izateko lehen hurratsa weborria sortzea ezin bestekoa izango zaigu. Eta horrekin batera bulego fisikoa, horrela gazteek bidaiaren erreserba egin ahalko dute eta dituzten zalantza guztiak argitzeko garrantzitsuak izango dira bi baliabide hauek.

Gazteen lekuan jarri ondoren erabaki dugu bidaia irekia izatea hainbat arrazoiengatik. Guk bidaiaren planifikazioa antolatu dugu baina norberak nahi duen ekintzetara bertaratzeko eskubidea izango dute. Are gehiago, otorduak egiteko lekuak proposatu besterik ez ditugu egingo eta norberak nahi duena egiteko askatasuna izango du. Hala ere ekintzetan parte hartu nahi dutenek, ordutegi eta arau batzuk errespetatu beharko dituzte parte hartu ahal izateko.

Bidai gehienak udaran antolatuko ditugu, izan ere, eguraldiarekin hobeto disfrutatu daitezkeen lekuak dira Ibiza eta Mallorca. Bestalde, gazteak ikasten ari direnez, udaran eukiko dute denbora libre gehien bidaiatzeko, ekainean, uztailean eta abuztuan hain zuzen



ere. Beraz hauek izango dira lan gehien edukiko ditugun hilabeteak noski, baina hala ere, urte osoan zehar egongo gara lanean, gazteek zubiak, aste santua, gabonetako oporrak... aprobeitza dezaten.

Bidaiaren plazei dagokionez, 50 gazteek izango dute parte hartzeko aukera txandako, modu horretan, bidaietan adin txikikoak egongo balira monitoreei lana erreztuko genieke eta bidaiak seguruagoa izango litzateke.

50 gazte hauek bidaiak dezaten ezinbestekoa da garraio bat edukitzea Mallorca eta Ibizara joateko. Horregatik, Vuelling enpresarekin jarri gara kontaktuan eta haiek berrmatuko digute garraio seguru bat edukitzea. Garraioaz gain, hostatua ezinbestekoa da noski. Beraz, Hotel Barceló enpresari esker gure gazteek kalitatezko hostatu bat edukiko dute. Baliabide hauek weborriaren antzera ezinbestekoak dira bidaiak gauzatu ahal izateko.

Hilabete bakoitzeko 2 txanda egingo genituzke, hau da, 2 bidai Ibizara eta beste 2 Mallorcara hiltzeko, hauek 10 eguneko iraupena izango dute arazoren bat egotearen kasuan edo monitoreek eta gure antolatze berrak denbora gehiago beharko bagenu.

Bidaiak antolatze berrak orduan, arazoak egon daitezke. Bidaiak kudeatzeko orduan hainbat alderdi ezberdin kontuan hartu behar ditugu eta arazoak egon ezkerok hauek nola konpondu ditzazkegun alde berrak antolatu behar da.

Gazteentzat zuzenduta dauden bidaiak direnez, normalean gazteak berrak lagunekin batera apuntatzen dira bidaira. Kuadrilakoak batera apuntatzen direnez, alor honetan arazoak gerta daitezke. Programara apuntatzeko orduan, apuntatzeko epeak finkatuta daude eta gerta daitezke lagun talde bateko gazte baten bati epea dagoela ahaztea edota gazte asko apuntatzen badira baten bat onartua ez izatea bere lagun guztiak onartuak daudenean.

Arazo honen aurrean, egoera hau ekiditeko bidaiak izena emateko orduan aukera emango diegu gazteei apuntatu diren berrak lagunak izen eta abizenak idatzeko. Berrak lagunak izen abizenak idazten badituzte gure hautaketa egiten dugun orduan kontuan hartuko ditugu



nortzuk diren gazte bakoitzaren lagunak eta horrela ez dira gazte kuadriletan arazo horiek sortuko.

Gazteen portzentaje bat adin txikikoak izango direnez beharrezkoa da haien gurasoen edo tutore legalaren baimena edukitzea bidaian parte hartzeko. Horrez gain, bidaian dauden bitartean norbait gaixotuko balitz mediku zihurtagiria beharrezkoa izango da.

Gazteak direnez eta batzuk adin nagusikoak direnez batzuk droga (adb; alkohola, tabakoa...) kontsumitzen dute. Gazte askok festak, alkohola eta tabakoarekin lotzen dituzte. Hala ere, guk bidaian adin txikikoei debekatu egingo diegu drogak kontsumitzea, edozer gertatu ezker arazoak eduki ditzazkegulako gure ardurapean daudelako eta gainera legalki berez kontsumitu ezin dituztelako. Horregatik, bai gure eta beraien obeharez begiratzu debekatzea da egokiena.

Gure enpresaren helburua bezeroei ahalik eta zerbitzu hoberena ematea da beti. Hortaz, kontuan hartuko ditugu berezitasunak dituzten pertsonak. Lehengo momentutik beraien kontaktuan jarriko gara beraien egoera aztertzeko eta horren arabera beraien beharretara egokitzeko neurriak hartuko ditugu. Gure enpresak monitore espezializatu batzuk edukiko ditu, ez gaitasun egoeren aurrean arazoei aurre egiteko eta pertsona hauei eta besteei bezain esperientzi ona eskaini ahal izateko. Bestalde, gure instalaziotan, hau da, hoteletan eta ekintzak egingo ditugun lekuetan beti egongo dira prestatuak beraiantzat.

Hortaz, argi dago heman beharko dugun beste hurrats bat monitoreak kontratatzea izango dela. Monitore hauek dagokien titulua edukitzeaz zihurtatu beharko gara noski, gazteen segurtasuna eta gurasoen lasaitasuna bermatzeko.

Ondorioz, gure bidaia antolatzen hasteko weborriari ekin beharko diogu bulegoa antolatzearekin batera. Jarraian garrantzitsua da hostatu eta garraioaren enprekin kontaktuan jartzea eta dena adostea. Eta azkenik, monitoreak kontratatzen hasi beharko ginateke adin txikikoen baitan. Horiek izango lirateke enpresa eredia jarraitzeko eman beharko genituzkeen hurrats garrantzitsuenak.